Sin./Fdo.: ISABEL SARRIONANDIA-IBARRA FERNANDEZ 2023-05-08
ENPRESAK SUSTATZEKO ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE PROMOCIÓN EMPRESARIAL
Sin./Fdo.: JOSEBA MIRENA MARIEZKURRENA CUESTA 2023-05-08
EKINTZAILETZA ETA ENPRESEN LEHIAKORTASUNA BULTZATZ.ZUZ.NAG. -REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GEN.DE EMPRENDIMIENTO Y COMPETITIVIDAD EMPRESARIAL
Sin./Fdo.: AINARA BASURKO URKIRI - 2023-05-08
EKONOMIA SUSTATZEKO SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2023-05-16
GZko 30.gaia onartuta - Aprobado, asunto 30) de OD

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ERABAKIA; honen bidez Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2.c) artikuluan aurreikusitako zuzeneko dirulaguntza emateko hitzarmena onartzen da. Dirulaguntza hori Berrikuntzan eta Ezagutzan Kualifikatutako Pertsonen Mugikortasunari Laguntzeko Bizkaia Talent Elkartearen aldekoa da eta 2023an Bizkaian talentua garatzeko, atxikitzeko eta erakartzeko jarduerak egiteko eman da.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren xedea Bizkaian aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzen laguntzea da, Bizkaiko enpresen artean lehiakortasun iraunkorra eta nazioartekotzea sustatuz eta, aldi berean, gure lurraldearen garapen orekatua erraztuz. Horri begira, estrategia integral bat abiarazi da, konpromiso hori betetzeko. Estrategia bost jarduketa ardatzetan oinarritzen da: ekintzailetza eta azelerazioa, berrikuntza eta lehiakortasuna, erakarpena eta interkonexioa, lurralde oreka eta talentua eta ezagutza, hori guztia balio erantsiko zerbitzuak modu eraginkorrean emateko konpromisotik abiatuta.

Testuinguru horretan, Ekonomia Sustatzeko Sailaren erronkarik handienetako bat ekonomia indarberritzea, suspertzea eta bultzatzea da, Bizkaia modu iraunkorrean haz dadin eta kalitatezko lanpostuak sortu eta denboran iraun dezaten. Horregatik, Sailaren helburu nagusien artekoak ditugu, batetik, garabidean dauden sektoreak sendotzea eta, bestetik, talentua nahiz ezagutza erakartzea eta sustatzea.

Ekonomia Sustatzeko Sailak, hainbat jarduketa-ildoren bidez, giza baliabideak merkatuaren eskakizun berrietara egokitzea erraztu nahi du. Hartara, kalitate oneko enplegua sortzea eta finkatzea ahalbidetuko du, jarduketak egiteko duen oinarrizko xede bat dena.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaia Egiten 2019-2023 estrategiaren esparruan, jorratu behar duen

ACUERDO por el que se aprueba el convenio por el que se concede una subvención directa prevista en el artículo 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, a favor de la Asociación de Apoyo a la Movilidad de Personas Cualificadas en Innovación y Conocimiento, Bizkaia Talent, para la realización de actuaciones tendentes al desarrollo, retención y atracción de talento en Bizkaia en 2023.

La misión del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia es contribuir a la creación de riqueza y empleo de calidad en Bizkaia, impulsando la competitividad sostenible y la internacionalización en el ámbito empresarial de Bizkaia al tiempo que facilitar el desarrollo equilibrado del Territorio. Para ello, se ha puesto en marcha una estrategia integral para hacer efectivo este compromiso, basada en cinco ejes estratégicos: emprendimiento y aceleración, innovación y competitividad, atracción e interconexión, equilibrio territorial y talento y conocimiento, todo ello desde el compromiso de una prestación eficiente de servicios de valor añadido.

Dentro de dicho contexto, uno de los mayores desafíos del Departamento de Promoción Económica es reactivar la economía y empujar a favor de la recuperación, con el objetivo de que Bizkaia pueda crecer de forma sostenible y generar y mantener empleo de calidad. Por eso, entre los principales objetivos del Departamento está la consolidación de sectores emergentes y el crecimiento y la atracción y promoción del talento y el conocimiento.

El Departamento de Promoción Económica pretende a través de sus diferentes líneas de actuación, facilita la adaptación de los recursos humanos a las nuevas exigencias del mercado, posibilitando la creación y consolidación de empleo de calidad, que constituye uno de los ejes fundamentales sobre el que giran sus actuaciones.

La Diputación Foral de Bizkaia, en el marco de la estrategia Bizkaia Egiten 2019-2023, establece

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: UP15-AUCA-DUWQ-0ZJV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

lan-ildoetako bat “Enplegu gehiago eta jarduera ekonomikoa handiagoa” da. Horrela, 2023an Bizkaiak talentua erakarri, atxiki eta lotu ahal izateko balio erantsiko jarduketak egitea guztiz bat dator Bizkaia Egiten 2019-2023 Planean lortu nahi diren helburuekin.

Gaur egun Bizkaian egoera demografikoa jaiotzetasa baxuak eta biztanleen zahartzeak markatzen dute. Horiei erreparatuz, zaila da lurraldeko enpresatan talentua ordezkatzea eta, ondorioz, lehentasuna dute talentua erakarri eta bertan atxikitzea, egungo talentua garatzearekin batera. Hala, enpresen lehiakortasuna sustatze aldera, etorkizunean oinarrizkoak izango diren eremuetan gaitasunak eta ezagutzak lortu behar dituzte.

Pertsonengan eta beren gaitasunetan oinarritutako apustu honek bakarrik emaitzak izango ditu estrategia koordinatua eta koherentea garatzen den neurrian. Horretarako, talentu kualifikatua garatu, erakarri eta atxikitzeko jarduerak eta zerbitzuak gauzatu behar dira, Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresa-sareari eremu estrategikoetan talentua izaten laguntzeko. Helburua etorkizunera begira, lehiakortasuna bermatzea da. Modu horretan, bermatuko da talentu kualifikatua eta garatuko dira kalitatezko lanpostuak Bizkaiko Lurralde Historikoko ekonomia eta gizarte-egituraren barruan balio erantsiko zikloetan lehiakortasun eta ekarpen handiagoak eskuratzeko.

Bizkaia Talent, Berrikuntzan eta Ezagutzan Pertsona Kualifikatuak Mugitzen Laguntzeko Elkartea, (aurrerantzean, Bizkaia Talent) irabazi-asmorik gabeko erakundea da. 2005. urtean sustatu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak, unibertsitate, teknologia eta ikerketa-zentro eta euskal enpresen laguntzaz, lankidetza publiko-pribatuan jarduteko. Bizkaia Talenten xedea da, jarduera eta zerbitzuen bitartez, Bizkaian beharrezko baldintzak ezar daitezen sustatzea berrikuntza eta ezagutza aurreratuaren prozesuetan pertsona kualifikatuak garatu, erakarri eta atxikitzeko.

Jarduketa horiek direla bide, Bizkaia Talent

como uno de sus ejes de actuación “Más y mayor empleo y actividad económica”. Así, la realización de actuaciones de valor añadido en 2023 destinadas a posibilitar para Bizkaia el desarrollo, la atracción y retención de talento, se alinea perfectamente con los objetivos perseguidos en Bizkaia Egiten 2019-2023.

La situación demográfica actual en Bizkaia, derivada de la baja natalidad y el envejecimiento de la población dificulta el reemplazo de talento en las empresas del territorio y convierte en prioritarios los objetivos de atracción, retención de talento, así como el desarrollo del talento actual dotándolo de las competencias y conocimientos en ámbitos clave de futuro que favorezca la competitividad de las empresas.

Esta apuesta basada en las personas y sus capacidades solo dará resultado en la medida en la que se desarrolle una estrategia coordinada y coherente. Para ello, es necesario llevar a cabo actividades y servicios orientados al desarrollo, retención y atracción de talento cualificado para apoyar al tejido empresarial del Territorio Histórico de Bizkaia a disponer del talento necesario en ámbitos estratégicos para garantizar la competitividad a futuro. Ello garantizará talento cualificado, y desarrollará puestos de trabajo de calidad que supongan una mayor capacidad competitiva y una mayor aportación en el ciclo del valor añadido en la estructura económica y social del Territorio Histórico de Bizkaia.

La Asociación de Apoyo a la Movilidad de Personas Cualificadas en Innovación y Conocimiento, Bizkaia Talent, (en lo sucesivo, Bizkaia Talent) es una entidad sin ánimo de lucro, nacida en 2005 como colaboración público-privada y promovida por la Diputación Foral de Bizkaia junto con Universidades, centros tecnológicos y de investigación y empresas vascas. Bizkaia Talent tiene como fin favorecer el establecimiento en Bizkaia de las condiciones necesarias para el desarrollo, atracción y retención de personas cualificadas en los procesos de innovación y conocimiento avanzado, mediante la realización de las actividades y servicios.

Mediante dichas actuaciones, Bizkaia Talent se

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: UP15-AUCA-DUWQ-0ZJV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaiko enpresen laguntzaile estrategiko bihurtzen da. Erakundeari esker, Bizkaiko enpresa-sareak eta BFAko Ekonomia Sustatzeko Sailak berak beren proiektu estrategikoetarako jardueran arrakasta bermatzeko talentu kualifikatua izango dute. Bizkaia Talentek zerbitzu-multzoa emango du, goi-mailako kualifikazioko talentua garatu, atxiki eta erakartzera bideratuta. Xede horrez, koherentziaz eta modu koordinatuan arituko da Ekonomia Sustatzeko Sailarekin batera.

Bizkaia Talenten lehentasuna izango da bai enpresa bultzatzaileei eta bai Bizkaiko funtsezko sektoreetako enpresa txiki eta ertainei eta start-upei eta talentu gazteari (azken ikasturteetako ikasleei edo esperientzia gutxiko profesionalei) eta kualifikazio handiko esperientziadunei, unibertsitateko ikasketak eta LH 2ko ikasketak dituztenei, bertakoak eta atzerrikoak, zerbitzuak eskaintzea, talentu hori Bizkaian gerarazteko eta garatzen laguntzeko.

Bizkaia Talentek lurraldeko talentua garatzeko, atxikitzeko eta erakartzeko helburuei egiten dien ekarpena bultzatuko du, ekitaldiak antolatuz, enpresa-talentua elkartzeko guneak sortuz eta enpresa-sarea tokiko jardueren garapenean inplikatuz.

Bizkaia Talentek profil kolaboratzailea izango du tokiko unibertsitate-ekosistemarekin eta ezagutzaren eragileekin, enpresen talentu-helburuak lortzen laguntzeko.

Bizkaia Talentek BFAren Ekonomia Sustatzeko Sailari lagunduko dio gaur egungo proiektu estrategikoetan. Helburu hori “Bizkaia Egiten” Gobernu Programaren eta etorkizunean Bizkaiko Lurralde Historikoan hedatuko diren proiektuen esparruan burutuko da talentua erakartzearekin, atxikitzearekin eta garatzearekin lotutako gaietan.

Bizkaian berrikuntza- eta ezagutza-prozesuan pertsona kualifikatuak garatu, erakarri eta atxikitzeko eta Bizkaiari azpiegitura material eta giza azpiegitura bat emateko beharrezko baldintzak ezartzea bultzatu eta errazteko helburuak lortzeko, erakundeen babesa behar da.

convierte en un colaborador estratégico de las empresas de Bizkaia. La entidad contribuirá a favorecer que el tejido empresarial de Bizkaia, y el propio Departamento de Promoción Económica de DFB-BFA en sus proyectos estratégicos, cuenten con el talento cualificado necesario para garantizar el éxito en su actividad. Bizkaia Talent va a realizar un conjunto de servicios orientados al desarrollo, retención y atracción de talento de alta cualificación, y para ello actuará de forma coherente y coordinada con el Departamento de Promoción Económica.

Bizkaia Talent va a destinar sus servicios prioritariamente a empresas tanto tractoras, como pymes start-ups en sectores clave de Bizkaia y al talento joven (estudiantes de últimos cursos o profesionales con poca experiencia) y experimentado de alta cualificación, estudios universitarios y FP 2 local y extranjero, al que retener en Bizkaia, atraer a Bizkaia y contribuir a su desarrollo.

Bizkaia Talent impulsará su contribución a los objetivos de desarrollo, retención y atracción de talento del territorio, organizando eventos y creando espacios de encuentro talento empresa e involucrando al tejido empresarial en el desarrollo de las actividades, a nivel local.

Bizkaia Talent va a mantener un perfil colaborador con el ecosistema universitario local y agentes del conocimiento con el fin de apoyar la consecución de los objetivos de talento de las empresas.

Bizkaia Talent apoyará al Departamento de Promoción Económica de DFB BFA en sus proyectos estratégicos actuales, en el marco del programa de gobierno “Bizkaia Egiten”, y futuros, que despliegue en el Territorio Histórico de Bizkaia, en aquellas cuestiones vinculadas con la atracción, retención y desarrollo del talento.

Para alcanzar los objetivos de impulsar y favorecer el establecimiento en Bizkaia de las condiciones necesarias desarrollar, atraer y retener a personas cualificadas en el proceso de innovación y conocimiento, y dotar a Bizkaia de una infraestructura material y humana, es necesario un apoyo institucional.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: UP15-AUCA-DUWQ-0ZJV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

SPRI, Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia, zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailari atxikia, eta bere xedea euskal enpresa-sarea babestea eta bultzatzea da.

SPRIk eta Bizkaia Talentek hitzarmen bat sinatu dute Bizkaia Talentek 2023an hainbat jarduera egin ditzan berrikuntza- eta ezagutza-prozesuan kualifikatutako pertsonak erakartzeko eta atxikitzeko Euskadira, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-lehiakortasunaren esparruan talentuaren garapenean aurrera egiteko eta sakontzeko.

Hitzarmen horrek, lehiakortasuna sendotu eta indartzeko eta kalitatezko enplegua sortzeko balio duenak, Bizkaia Talenten jarduketen inpaktua Euskal Autonomia Erkidego osora zabaltzeko, dauden zerbitzu batzuk indartzeko eta zerbitzu berriak diseinatu eta abiarazteko jarduerak ezartzen ditu.

Bizkaia Talentek 2023an garatuko duen jarduera-plana honako hau da:

- TALENTIA ZERBITZUA (BFAk finantzatua).
- LANBIDE HEZIKETA ETA ZERBITZU AURRERATUAK (SPRIk finantzatua).
- BASQUE EMPLOYER BRANDING (SPRIk finantzatua).
- CUSTOMER RELATIONSHIP SERVICE (DFB-SPRIk kofinantzatua).
- NAZIOARTEKO NETWORKING ZERBITZUA (DFB-SPRIk kofinantzatua).
- RELOCATION ZERBITZUA ETA BASQUE DUAL CAREER CENTRE (DFB-SPRIk kofinantzatua):
  - Relocation zerbitzua.
  - Basque Dual Career Centre
  - EURAXESS sarea.
- KANPOKO ERAKUNDEEN SAREA (BFAk finantzatua).
- ATZERRIKO IKASLEAK ERAKARTZEA NAZIOARTEKO BITARTEKARITZA-

SPRI, la Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial, es un ente público de derecho privado adscrito al Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, con el objetivo de apoyar e impulsar el tejido empresarial vasco.

SPRI y Bizkaia Talent han firmado un convenio con el fin de que Bizkaia Talent desarrolle en 2023 diversas actividades para atraer y retener a personas cualificadas en el proceso de innovación y conocimiento a Euskadi para avanzar y profundizar en el desarrollo de talento en el ámbito de la competitividad territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Dicho convenio, con objeto de consolidar y fortalecer la competitividad y generar empleo de calidad, prevé la realización de actividades tendentes a extender el impacto de las actuaciones de Bizkaia Talent al conjunto de la Comunidad Autónoma de Euskadi, reforzar algunos de los servicios existentes y diseñar y lanzar nuevos servicios.

El plan de actividades que Bizkaia Talent llevará a cabo en 2023 es el siguiente:

- SERVICIO TALENTIA (Financiado por DFB)
- FORMACIÓN PROFESIONAL Y SERVICIOS AVANZADOS (Financiado por SPRI)
- BASQUE EMPLOYER BRANDING (Financiado por SPRI)
- CUSTOMER RELATIONSHIP SERVICE (Cofinanciado por DFB-SPRI)
- SERVICIO DE NETWORKING INTERNACIONAL (Cofinanciado por DFB-SPRI)
- SERVICIO DE RELOCATION Y BASQUE DUAL CAREER CENTRE (Cofinanciado por DFB-SPRI):
  - Servicio de Relocation
  - Basque Dual Career Centre
  - Red EURAXESS
- RED DE ORGANIZACIONES EN EL EXTERIOR (Financiado por DFB)
- ATRACCIÓN DE ESTUDIANTES EXTRANJEROS A TRAVÉS DE AGENCIAS DE

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: UP15-AUCA-DUWQ-0ZJV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

AGENTZIEN BIDEZ (SPRIk finantzatua).

- TALENTUA ERAKARTZEKO KANPAINA DIGITALA (SPRIk finantzatua).
- BERRIKUNTZA (DFB-SPRIk kofinantzatua).

Ezarri da proiektu honen kostua 1.830.000 euro izango dela eta betearazteko 1.260.000 euroko dirulaguntza eskatu zaio Bizkaiko Foru Aldundiari.

Ekonomia Sustatzeko Sailaren 2020-2023ko Dirulaguntza Plan Estrategikoak dirulaguntza hori aurreikusten du 2. helburu estrategikoaren (Ezagutza eta talentua Bizkaian errotzea ») 2.2 dirulaguntza lerroaren («Basque Talent Network sarea dinamizatzea ») 2.2.2 programan (Basque Talent Network), Programa horren barruan sartzen da proiektu hau.

Akordio honek ezartzen duen araubideko dirulaguntza ez da lehia askea babesteko Europako araudian araututako estatu-laguntza (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 107. artikulua eta hurrengoak); izan ere, proiektu honen xedea kontzeptu horren irismenetik kanpo dago, berez ez baita jarduera ekonomikoa, eta ez baitu gaitasunik lehia askea aldatzeko edo estatuen arteko merkataritza-trukeetan eragiteko.

Bizkaia Talent Elkartearen helburuen eta Ekonomia Sustatzeko Sailaren ildo estrategikoen arteko identitateak Sailak elkartea babestea justifikatzen du, hain zuzen ere Bizkaian talentua garatzeko, erakartzeko eta atxikitzeko apustuan. Horregatik Ekonomia Sustatzeko Saileko foru diputatuaren 2023ko martxoaren 27ko 3022/2023 Foru Aginduaren bidez, ofizioz eta bere ekimenez, Bizkaian 2023an talentua garatu, atxiki eta erakartzeko proiektuari laguntza emateko zuzeneko dirulaguntza emateko prozedura hastea erabaki zen.

Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza

MEDIACIÓNINTERNACIONALES (Financiado por SPRI)

- CAMPAÑA DIGITAL DE ATRACCIÓN DE TALENTO (Financiado por SPRI)
- INNOVACIÓN (Cofinanciado por DFB-SPRI)

Se ha estimado que el coste de este proyecto será 1.830.000 euros, solicitándose para su ejecución una subvención de 1.260.000 euros a la Diputación Foral de Bizkaia.

El Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 del Departamento de Promoción Económica prevé dicha ayuda dentro del objetivo estratégico 2. "Enraizar conocimiento y talento en Bizkaia", Línea de subvención 2.2: "Dinamizar la red Basque Talent Network", en el programa 2.2.2: "Basque Talent Network", en el que tiene cabida este proyecto.

La subvención cuyo régimen establece este acuerdo no constituye una ayuda de estado regulada en la normativa europea de protección de la libre competencia (artículo 107 y siguientes del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, TFUE), dado que el objeto de este proyecto está fuera del alcance de dicho concepto, al no constituir una actividad económica propiamente ni tener capacidad de alterar la libre competencia ni afectar a los intercambios comerciales entre estados.

La identidad entre los objetivos de la Asociación Bizkaia Talent y las líneas estratégicas del Departamento de Promoción Económica justifican el apoyo de este Departamento a la asociación en su apuesta por el desarrollo, la atracción y retención de talento a Bizkaia. Por ello, mediante la Orden Foral 3022/2023, de 27 de marzo de 2023, de la Diputada Foral del Departamento de Promoción Económica acordó iniciar de oficio, por propia iniciativa, el procedimiento para la concesión de una subvención directa con el fin de dar apoyo al proyecto de desarrollo, retención y atracción de talento en Bizkaia en 2023.

Además, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y, para ello, lleva numerosos años trabajando en

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: UP15-AUCA-DUWQ-0ZJV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

berdintasunaren arloan lanean.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren aldeko xedapen batzuk ezartzen ditu. Beraz, akordioaren eremuan garatzen diren jarduketek genero-ikuspegia hartu beharko dute kontuan. Bere aldean, Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Planak esparru estrategikoa eskaintzen du, Bizkaiko Foru Aldundiaren berdintasun-arloko politika publikoak garatzeko, 2021-2024 ekitaldietan.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2 c) artikuluak ezartzen du zuzenean eman ahal izango direla, salbuespen modura, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztatuengatik, edo behar bezala justifikaturiko beste arrazoi batzuengatik, deialdi publikoa egiteko eragozpenak daudeneko dirulaguntzak.

Bizkaiko Foru Aldundiak estrategia koordinatu eta koherente baten alde egiten du, pertsonengan eta haien gaitasunetan oinarrituta, lurralde-lehiakortasun iraunkorra lortzeko formula gisa, eta uste du Bizkaian talentua garatu, erakarri eta atxikitzeko jarduketak egiteak onura handia ekarriko diela lurraldeko enpresei, ekimenari esker prestakuntza handiko langileak lortuko dituztelako euren hazkundea eta lehiakortasuna bultzatzeko, eta, beraz, lurraldearen interes publiko, sozial eta ekonomikoa bultzatzeko. Horregatik, eta Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 26. Artikuluan, 20.2c) artikuluari dagokionez, xedatutakoarekin bat, beharrezkotzat jotzen da Bizkaia Talenti zuzeneko emakidaren prozeduraren bidez dirulaguntza ematea 2023an aipatutako proiektua garatzeko; dirulaguntza honen araubide juridikoa honekin batera doan hitzarmenean ezarritakoa izango da.

Azaldutako guztiak laguntzaren interes publikoa, soziala eta ekonomikoa egiaztatzen du, Bizkaiko

materia de igualdad.

La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres establece disposiciones en favor de una efectiva igualdad de mujeres y hombres. En consecuencia, todas las actuaciones que se desarrollen en el marco de este acuerdo deberán tener en cuenta la perspectiva de género. Por otra parte, el VI Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Bizkaia ofrece el marco estratégico para el desarrollo de las políticas públicas en materia de igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia durante los ejercicios 2021-2024.

El artículo 20.2 c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, prevé la posibilidad de conceder de forma directa, con carácter excepcional, aquellas subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten una convocatoria pública.

La Diputación Foral de Bizkaia apuesta por una estrategia coordinada y coherente basada en las personas y sus capacidades como fórmula para lograr la competitividad territorial sostenible y considera que la ejecución de actuaciones tendentes al desarrollo, atracción y retención de talento en Bizkaia aportará un beneficio importante a las empresas del territorio en la medida que les va a dotar de personal altamente cualificado para favorecer su crecimiento y competitividad. y por tanto, favorecer al interés público, social y económico del territorio Por esta razón y, en virtud de lo dispuesto por el artículo 26 en relación al 20.2c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, que regula el Régimen Jurídico General de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, se considera necesario el otorgamiento a Bizkaia Talent de una subvención para el desarrollo en 2023 del proyecto mencionado mediante el procedimiento de concesión directa cuyo régimen jurídico será el establecido en el convenio que se acompaña.

Todo lo expuesto acredita el interés público, social y económico de la ayuda que redunda en beneficio

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: UP15-AUCA-DUWQ-0ZJV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

lurraldeari ere onura dakarkiola, eta proposatzen diren helburuak lortzeko, deialdi publikorik ez erabiltzea bidezkotzen du.

Horregatik guztiagatik, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 9.2 artikuluan eta martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onetsitako Dirulaguntzen Foru Erregelamenduaren 12.3 artikuluan ezarritakoa betez, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari honako erabaki-proposamen hau aurkeztu zaio, berak onets dezan:

ERABAKIA

LEHENENGOA:

Bizkaia Talentian eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko hitzarmena baimentzea, 2023an Bizkaian talentua garatu, atxiki eta erakartzeko jarduketak egiteko. Hitzarmen horren testua, alderdiek euren gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak jasotzen dituena, honekin batera ematen da, baita hirugarren puntuan adierazitako finantza-ekarpena ere, eta, araudi orokor aplikagarriarekin batera, dirulaguntza honetan aplikatu beharreko araubidea ezartzen du.

BIGARRENA

Baimena emateak berekin dakar, inplizituki, dirulaguntza ematea onartzea, eta baldintza suntsiarazle honen mende geratzen da: baldintzak betetzea eta hitzarmena formalizatu aurretik laguntza honen onuradun izateko debekurik ez izatea.

HIRUGARRENA

Finantza-ekarpena, 1.260.000 eurokoa, 2023. ekitaldiko aurrekontuko partida honen kargura egingo da:

Ekonomikoa: 45100
Programa: 426106
Organikoa: 0803
Proiektu zk.: 2008/0118

para Bizkaia y justifica la no utilización de una convocatoria pública para conseguir los objetivos que se plantean.

Por todo ello, en virtud de lo establecido en el artículo 9.2 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el artículo 12.3 del Reglamento Foral de Subvenciones aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, se somete a la aprobación del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia la siguiente propuesta de:

ACUERDO

PRIMERO:

Autorizar la celebración de un Convenio entre Bizkaia Talent y la Diputación Foral de Bizkaia, para la realización de actuaciones tendentes al desarrollo, retención y atracción de talento en Bizkaia en 2023 cuyo texto se adjunta y en el que se recogen las obligaciones y compromisos asumidas por las partes, incluida la aportación financiera indicada en el punto tercero y que, junto a la normativa general aplicable, establece el régimen a aplicar en la presente subvención.

SEGUNDO

La autorización conlleva implícitamente la aprobación de la concesión de la subvención que queda sometida a la condición resolutoria de que se cumplan los requisitos y no estar incursa en ninguna de las prohibiciones para adquirir la condición de beneficiaria de esta ayuda en un momento anterior a la formalización del convenio.

TERCERO

La aportación financiera por importe 1.260.000 € se realizará con cargo a la siguiente partida presupuestaria del presupuesto 2023:

Económico: 45100
Programa: 426106
Orgánico: 0803
Proyecto nº: 2008/0118

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: UP15-AUCA-DUWQ-0ZJV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

LAUGARRENA:

Ahalmena ematea ekonomia sustatzeko foru diputatuari aipatutako hitzarmena hori sinatzeko eta garatzeko, aplikatzeko eta exekutatzeko beharrezko xedapen guztiak, eta horien artean honako hauek: dirua itzultzeko espedienteak izapidetzea eta ebaztea, bai eta dirulaguntzarako baldintzak aldatzea, laguntzaren kopuruari dagokiona izan ezik.

CUARTO:

Facultar a la diputada foral de promoción económica para la firma del referido convenio, así como para que dicte todas las disposiciones necesarias para su desarrollo, aplicación y ejecución, incluyendo la tramitación y resolución de eventuales expedientes de reintegro, así como de modificación de las condiciones de la subvención, excepto en lo que se refiere a su cuantía máxima.

BOSGARRENA:

Erabaki hau Bizkaia Talenti, ekonomia sustatzeko Sailari jakinaraztea, eta haren berri ematea Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuari.

QUINTO:

Notificar el presente acuerdo Bizkaia Talent, al Departamento de Promoción Económica y dar traslado del mismo al Servicio de Fiscalización del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Enpresak Sustatzeko Zerbitzuko burua. / La jefa del Servicio de Promoción Empresarial. ISABEL SARRIONANDIA-IBARRA FERNÁNDEZ

O.E./Vº Bº

Ekintzailetza eta Enpresen Lehiakortasuna Bultzatzeko zuzendari nagusia. / El director general de Emprendimiento y Competitividad Empresarial. JOSEBA MARIEZKURRENA CUESTA

**Aurreko tramitean ezarri denarekin bat, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio / De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno.**

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua / La diputada foral de Promoción Económica. AINARA BASURKO URKIRI

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: UP15-AUCA-DUWQ-0ZJV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

HITZARMENA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA BERRIKUNTZAN ETA EZAGUTZAN KUALIFIKATUTAKO PERTSONEN MUGIKORTASUNARI LAGUNTZEKO BIZKAIA TALENT ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, 2023AN BIZKAIAN TALENTUA GARATZEKO, ATXIKITZEKO ETA ERAKARTZEKO JARDUERAK EGITEKO

Alde batetik, Ainara Basurko Urkiri andrea Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean (IFK: P4800000D) eta ordezkaritzan, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2023ko xaren (e)ko Erabakiaren bidez emandako ahalmenak erabiliz.

Bestetik, Ivan Jimenez Aira, berrikuntzan eta ezagutzan kualifikatutako pertsonen mugikortasunari laguntzeko Bizkaia Talent Elkarteko (IFK: G95326583 eta helbidea Laga Bidea, 804 Eraikina, 300. Modulua, Derio, 48160 PK) zuzendari kudeatzailea. Elkarte horren izenean eta ordezkaritzan dihardu 2011ko azaroaren 9an 0857598 zenbakidun eskrituraren bidez, Jose Mª Rueda Armengot. notarioaren aurrean emandako ahalordeak direla eta.

Aldeek aitortzen dizkiote elkarri honako hitzarmena gauzatzeko beharrezko gaitasuna eta eskumena, eta hauxe.

ADIERAZTEN DUTE

LEHENENGOA

Bizkaiko Foru Aldundiaren helburu nagusietako bat jarduera ekonomikoa sustatzea eta enplegua sortzea da eta, horretarako, Bizkaian talentua erakartzen, sustatzen eta lotzen laguntzeko konpromisoa hartzen du, Bizkaia Talent Elkarteari lagunduz. Elkarte horren elkartegintza-proiektua Bizkaiko Lurralde Historikoan ikerketa, sorkuntza, berrikuntza eta ezagutza sustatzea da.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaia Egiten 2019-2023 deritzon estrategiaren bidez, erronka nagusietakotzat ezarri ditu jarduera ekonomikoa eta enpleguaren sorrera sustatzea eta, horretarako, talentua eta ezagutza alderdi guztietatik erakartzen eta sustatzen laguntzeko

CONVENIO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LA ASOCIACIÓN DE APOYO A LA MOVILIDAD DE PERSONAS CUALIFICADAS EN INNOVACIÓN Y CONOCIMIENTO, BIZKAIA TALENT, PARA LA REALIZACIÓN DE ACTUACIONES TENDENTES AL DESARROLLO, RETENCIÓN Y ATRACCIÓN DE TALENTO EN BIZKAIA EN 2023.

De una parte, Ainara Basurko Urkiri, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, NIF P4800000D, actuando en virtud de las facultades otorgadas mediante Acuerdo de la Diputación Foral de fecha de de 2023.

De otra parte, Iván Jiménez Aira, en nombre y representación de la Asociación de Apoyo a la Movilidad de Personas Cualificadas en Innovación y Conocimiento, Bizkaia Talent, NIF G95326583, con domicilio en Derio, provincia de Bizkaia, Parque Tecnológico de Bizkaia C/ Laga Bidea Edificio 804 Módulo 300, en calidad de Director Gerente de Bizkaia Talent y en virtud de los poderes otorgados mediante escritura número 0857598 de 9 de noviembre de 2011 ante el notario Jose Mª Rueda Armengot.

Las partes se reconocen la capacidad jurídica necesaria para suscribir el presente convenio y en su virtud.

EXPONEN

PRIMERO

La Diputación Foral de Bizkaia tiene como uno de sus principales objetivos promover la actividad económica y la generación de empleo y para ello se compromete a apoyar el desarrollo, la atracción y promoción del talento en Bizkaia, a través del apoyo a Bizkaia Talent cuyo proyecto asociativo es promover la investigación, creación, innovación y el conocimiento en el Territorio Histórico de Bizkaia.

La Diputación Foral de Bizkaia, a través de la estrategia Bizkaia Egiten 2019-2023, ha fijado como uno de sus principales desafíos promover la actividad económica y la generación de empleo y, para ello, se compromete a apoyar la atracción y promoción del talento y el conocimiento en todas

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: UP15-AUCA-DUWQ-0ZJV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

konpromisoa hartu du.

BIGARRENA

Hitzarmen honen helburua da Berrikuntza eta Ezagutzan Kualifikatutako Pertsonen Mugikortasunari Laguntzeko Bizkaia Talent Elkarteari zuzeneko dirulaguntza emateko baldintzak eta konpromisoak ezartzea, Bizkaian 2023an talentua garatzeko, atxikitzeko eta erakartzeko jarduerak egiteko.

Bizkaiak talentua eta ezagutza dituen lurraldea izan nahi du, prestakuntza handiko langileen garapen profesionalerako erakargarria, ezagutza enpresetara transferituz eta, horrela, gure ehun ekonomikoaren garapena eta iraunkortasuna sustatuz.

HIRUGARRENA

Bizkaia Talent, berrikuntzan eta ezagutzan kualifikatutako pertsonen mugikortasunari laguntzeko elkartearen helburua Bizkaian berrikuntza- eta ezagutza-prozesu aurreratuetan kualifikazio handiko pertsonak garatzeko, erakartzeko eta atxikitzeko beharrezko baldintzak ezartzen laguntzea da, jarduerak eta zerbitzuak eginez, Europan erreferentziazko eredu bihurtzeko langile kualifikatuen mugikortasunari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoa lehentasunezko lan-helmuga bilakatzen lagunduz Europako beste lurralde eta eskualde batzuen aldean; izan ere, talentua erakartzeko gune izateak inpaktu positiboa du Bizkaiaren gizartearentzat eta ekonomiarentzat.

LAUGARRENA

Bizkaia Talent-ek Lurraldeko talentu-beharrak identifikatze aldera, erakundeekiko hurbileko eta lankidetzako errealizazioari eutsiko dio, eta zerbitzuak trakzio-enpresei, ETEei eta start up enpresei emango dizkie, Bizkairako funtsezkoak diren sektoreetan. Horrela, lurraldeko enpresen laguntzaile estrategiko bihurtuko da talentu kualifikatua garatzeko, atxikitzeko eta erakartzeko.

sus vertientes.

SEGUNDO

El presente convenio tiene como finalidad establecer las condiciones y compromisos asociados a la concesión de una subvención directa a favor de la Asociación de Apoyo a la Movilidad de Personas Cualificadas en Innovación y Conocimiento, Bizkaia Talent, para la realización de actuaciones tendentes al desarrollo, retención y atracción de talento en Bizkaia en 2023.

Bizkaia aspira a ser un territorio con talento y conocimiento, atractivo para el desarrollo profesional del personal altamente cualificado transfiriendo el conocimiento a las empresas y promoviendo así el desarrollo y la sostenibilidad de nuestro tejido económico.

TERCERO

La Asociación de Apoyo a la Movilidad de Personas Cualificadas en Innovación y Conocimiento, Bizkaia Talent tiene como objetivo favorecer el establecimiento en Bizkaia de las condiciones necesarias para el desarrollo, atracción y retención de personas altamente cualificadas en los procesos de innovación y conocimiento avanzado, mediante la realización de actividades y servicios, con el objeto de convertirse en un modelo de referencia en el ámbito europeo con relación a la movilidad del personal cualificado, ayudando a convertir el Territorio Histórico de Bizkaia en un destino laboral preferente frente a otros territorios y regiones de Europa, ya que erigirse en un polo de atracción de talento tiene un impacto positivo en la sociedad y economía de Bizkaia.

CUARTO

Bizkaia Talent con el fin de identificar las necesidades de talento en el territorio, va a mantener una relación cercana y colaborativa con las organizaciones destinando sus servicios a empresas tanto tractoras, como pymes y start ups en sectores clave para Bizkaia, convirtiéndose así en un colaborador estratégico de las empresas del territorio en el desarrollo, retención y atracción de talento cualificado.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: UP15-AUCA-DUWQ-0ZJV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia Talent-en jardueraren fokua, 2023an, alde batetik, unibertsitate-ikasketetan eta tokiko eta eskarmentu handiko eta kualifikazio handiko talentuan kokatuko da eta, bestetik, Bizkaiko enpresetan, haiekin hurbiltasun- eta lankidetza-posizioari eutsiko baitio, garapenarekin eta atxikipenarekin lotutako tokiko ekintza bateratuak areagotuz eta lehenetsiz, eta talentua erakartzea eta aberriratzea errazteko kanpoan beharrezkoak diren ekintzak gauzatuz.

El foco de la actividad de Bizkaia Talent en 2023 se va a situar por un lado en el talento joven experimentado y de alta cualificación de estudios universitarios y por otro en las empresas de Bizkaia, con las que va a mantener una posición de cercanía y colaboración, intensificando y priorizando las acciones locales conjuntas en el territorio vinculadas con el desarrollo y retención, y llevando a cabo las acciones necesarias en el exterior para favorecer la atracción y repatriación de talento.

BOSGARRENA.

Bizkaiko Foru Aldundiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorraren aldeko konpromisoari eusten dio, eta, horregatik, Ekonomia Sustatzeko Sailaren jarduera guztiak genero-ikuspegia kontuan hartuta eta oraindik dauden desberdintasunak murrizteko neurriak finkatuta egiten dira.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren aldeko xedapen batzuk ezartzen ditu. Beraz, hitzarmenaren eremuan garatzen diren jarduketek genero-ikuspegia hartu beharko dute kontuan. Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Planak esparru estrategikoa eskaintzen du, Bizkaiko Foru Aldundiaren berdintasun-arloko politika publikoak garatzeko, 2021-2024 ekitaldietan.

Hitzarmen hau izapidetzean martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan aurreikusitako generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostena eta ebazteko neurriak desberdintasunak eta berdintasuna sustatzea sartu da. Txosten hau idazteko aplikatu dira azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan ezarritako gidalerroak.

SEIGARRENA

Hitzarmena egiteko, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jarduera-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan

QUINTO

La Diputación Foral de Bizkaia mantiene su compromiso a favor de la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres y, por ello, todas las actuaciones del Departamento de Promoción Económica se desarrollan teniendo en cuenta la perspectiva de género y fijando medidas tendentes a reducir las desigualdades aún existentes.

La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres establece disposiciones en favor de una efectiva igualdad de mujeres y hombres. En consecuencia, todas las actuaciones que se desarrollen en el marco de este convenio deberán tener en cuenta la perspectiva de género. El VI Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Bizkaia ofrece el marco estratégico para el desarrollo de las políticas públicas en materia de igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia durante los ejercicios 2021-2024.

Se incorpora a la tramitación de este convenio el informe de evaluación previa de impacto en función de género y medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad previsto en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, en cuya redacción se han aplicado las directrices establecidas en el Decreto Foral 141/2013, de 19 de noviembre.

SEXTO

En la elaboración del convenio se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: UP15-AUCA-DUWQ-0ZJV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

xedatutakoa.

Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral.

ZAZPIGARRENA

Hitzarmen honen eremua eta bertan gauzatu beharreko alderdiak zehaztu behar dira, izan ere, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak 20.2 c) artikuluan xedatzen duenez, salbuespen gisa zuzenean eman ahal izango direlako interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten dirulaguntzak, edo deialdi publikoa oztopatzen duten behar bezala justifikatutako beste batzuk.

Beste alde batetik, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutako maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzeko Dirulaguntzen Erregelamenduak 52. artikuluan ezartzen ditu dirulaguntza mota horiek arautzen dituzten arauak jasoko dituzten alderdiak. Era berean, ezartzen da espedientean dirulaguntza kudeatzen duen organoaren txosten bat sartu beharko dela, honako hauek justifikatzeko: dirulaguntzaren izaera berezia; interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa egiaztatzen duten arrazoiak; eta deialdiaren zailtasuna justifikatzen duten beste arrazoi batzuk.

Horrela, bada, arestian azaldutakoarekin bat etorriz alderdiek erabaki dute hitzarmen hau sinatzea, zeinak klausula hauek bete behar dituen.

SÉPTIMO

Es preciso determinar el ámbito de este convenio y los aspectos que en el mismo se han de materializar ya que la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral dispone en su artículo 20.2.c) que podrán concederse de forma directa, con carácter excepcional, aquellas subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.

Por su parte, el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, en su artículo 52 establece los extremos que incluirán la normas que regulen este tipo de subvenciones debiendo asimismo incluirse en el expediente un informe del órgano gestor de la subvención justificativo su carácter singular, de las razones que acreditan el interés público, social, económico o humanitario, u otras que justifican la dificultad de su convocatoria.

Así pues, de conformidad con lo anteriormente expuesto, las partes acuerdan suscribir el presente convenio el cual se regirá por las siguientes.

## KLAUSULAK

### 1. Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak egin beharreko jarduketak

Hitzarmen honen xedea da Bizkaia Talent Berrikuntzan eta Jakintzan Kualifikatutako Pertsonen Mugikortasunari Laguntzeko Elkarteari, dirulaguntza zuzena ematearekin lotutako baldintzak eta konpromisoak ezartzea, Bizkaiko talentua garatu, atxikitzeko eta erakarri 2023an honako jarduera hauek egiteko laguntza gisa:

## CLÁUSULAS

### 1. Objeto del convenio y actuaciones a realizar por cada sujeto

El presente convenio tiene como finalidad establecer las condiciones y compromisos asociados a la concesión de una subvención directa a la Asociación de Apoyo a la Movilidad de Personas Cualificadas en Innovación y Conocimiento, Bizkaia Talent, en concepto de ayuda para la realización de actuaciones tendentes al desarrollo, retención y atracción de talento en Bizkaia en 2023:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: UP15-AUCA-DUWQ-0ZJV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia Talentek Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatutako honako jarduketa hauek burutuko ditu 2023an:

- TALENTIA ZERBITZUA.
- KANPOKO ERAKUNDEEN SAREA.

Bizkaia Talentek, 2023an, Bizkaiko Foru Aldundiak eta SPRIk batera finantzatutako jarduera hauek burutuko ditu:

- CUSTOMER RELATIONSHIP SERVICE.
- NAZIOARTEKO NETWORKING ZERBITZUA.
- RELOCATION ZERBITZUA ETA BASQUE DUAL CAREER CENTRE.
  - Relocation zerbitzua
  - Basque Dual Career Centre
  - EURAXESS sarea
- BERRIKUNTZA.

Bizkaia Talentek 2023an SPRIk finantzatutako jarduera hauek egingo ditu:

- LANBIDE HEZIKETA ETA ZERBITZU AURRERATUAK.
- BASQUE EMPLOYER BRANDING .
- NAZIOARTEKO BITARTEKOTZA-AGENTZIEN BIDEZ IKASLE ATZERRITARRAK ERAKARTZEA.
- TALENTUA ERAKARTZEKO KANPAINA DIGITALA.

Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez lurralde-lehiakortasun iraunkorra lortzeko ezinbestekoa da eragile garrantzitsuekin ekimenak abiaraztea, talentua erakarri eta atxikitzera bideratuta, Bizkaia lurralde berritzaile eta erakargarri bihurtzeko funtsezko faktore gisa. Horren guztiaren ondorioz Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez Bizkaia Talent Programak Bizkaiaren interes publiko, sozial eta ekonomikoaren mesedetan eragiten du, enpresei talentua emango dien programa baita, merkatuaren egungo egoerara egokitzeko aurre egin behar dieten erronkei aurre egin ahal izateko behar dituzten profilak eta

Bizkaia Talent llevará a cabo en 2023 las siguientes actividades financiadas por la Diputación Foral de Bizkaia:

- SERVICIO TALENTIA
- RED DE ORGANIZACIONES EN EL EXTERIOR

Bizkaia Talent llevará a cabo en 2023 las siguientes actividades financiadas conjuntamente por la Diputación Foral de Bizkaia y SPRI:

- CUSTOMER RELATIONSHIP SERVICE
- SERVICIO DE NETWORKING INTERNACIONAL
- SERVICIO DE RELOCATION Y BASQUE DUAL CAREER CENTRE
  - Servicio de Relocation
  - Basque Dual Career Centre
  - Red EURAXESS
- INNOVACIÓN

Bizkaia Talent llevará a cabo en 2023 las siguientes actividades financiadas por la SPRI:

- FORMACIÓN PROFESIONAL Y SERVICIOS AVANZADOS
- BASQUE EMPLOYER BRANDING
- ATRACIÓN DE ESTUDIANTES EXTRANJEROS A TRAVÉS DE AGENCIAS DE MEDIACIÓNINTERNACIONALES
- CAMPAÑA DIGITAL DE ATRACCIÓN DE TALENTO

La Diputación Foral de Bizkaia considera que para lograr la competitividad territorial sostenible resulta imprescindible poner en marcha iniciativas con agentes relevantes, que se encaminen a la atracción y retención del talento como factor clave para hacer de Bizkaia un territorio innovador y atractivo. En consecuencia, la Diputación Foral de Bizkaia considera que el Programa de Bizkaia Talent repercute en beneficio del interés público, social y económico de Bizkaia en cuanto que es un programa que permitirá dotar a las empresas del talento de personas con los perfiles y experiencia necesarias para poder abordar los retos a los que

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: UP15-AUCA-DUWQ-0ZJV
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

esperientzia izango dituzten pertsonez hornitua. Ekimen hau apustu estrategikoa eta beharrezkoa da Bizkaia lurralde berritzailea, talentuduna, erakargarria, konektatua eta orekatua izatea lortzeko, kalitatezko enplegua sortu eta mantentzeko gai izango dena, Europako abangoardia ekonomiko eta sozialean.

Horregatik, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 26. Artikuluari dagokionez 20.2.c) artikuluan xedatutakoarekin bat, beharrezkotzat jotzen da zuzeneko emakidaren prozeduraren bidez dirulaguntza ematea proiektu hau gauzatzeko.

## 2. Erakunde onuraduna

Bizkaia Talent ek Dirulaguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ditu dirulaguntzaren onuradun izateko.

Beste alde batetik, Foru Arauko 13. artikuluaren arabera, ezarritako betebehar guztiak bete beharko ditu.

Dirulaguntzaren erakunde onuradunak ez du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako debekuen eraginpean, ez eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, aurreikusitako 23 artikuluan aurreikusitako egoeren eraginpean ere, eta dirulaguntza honen xedea ez da sexuaren ziozko bereizkeria dakarren jarduera edo ekintza bat.

Hitzarmen hau sinatzeak esan nahi du onuradunak baimena ematen duela Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean egiazta dezan onuradunak betetzen duela xedapen indardunek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta elkarreragingarritasunaren bidez lor daitezkeen gainerako datuak.

tienen que enfrentarse para adaptarse a la situación actual del mercado. Es una apuesta estratégica y necesaria para hacer de Bizkaia un territorio innovador, con talento, atractivo, conectado y equilibrado, capaz de crear y mantener empleo de calidad que se mantenga a la vanguardia económica y social de Europa.

Por ello, en virtud de lo dispuesto por el artículo 26 en relación con el 20.2 c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, que regula el Régimen Jurídico General de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, se considera necesario el otorgamiento de una subvención para la ejecución de este proyecto mediante el procedimiento de concesión directa.

## 2. Entidad beneficiaria

